

# noaue



**Jai giroa nagusi izango da egunotan Kalezarren**

**Arkaitzerrekako hondamendiari lotutako ikerketa zabaltzea agindu du Donostiako epaitegi batek**

**25 urte bete dira, 1997ko ekaineko uholdeetatik**



**Joan Mari Torrealdei Beka,  
“haria eten ez dadin”**



# TXIRIBOGA

TABERNA

Ondo pasa  
Santixabeletan!

**SANTIXABEL FESTETAN:**

(Ostiral gaueetik igande eguerdira)

**MENU BEREZIAK AUKERAN:**

41€

43€

45€

**SAN JUAN BEZPERAN...**

OGITARTEKOAK

**943 21 88 40**

IRAZU KALEA 6, USURBIL

# noqua

jarraitu gure sare sozialak

facebook

Instagram

twitter

noqua

www.noqua.eus

**Ingeleseko klaseak haur eta helduentzat**

**LH3tik aurrera**

**tobyngana**  
english SCHOOL

Bertako irakasleak • Matrikulatzea dohainik • Online saioak urrutik bizi direnentzat  
Taldea murriztuak • Cambridge azterketen prestakuntza • High level "use your English"

**Zatoz lagunekin ondo pasatuz ikastera!**

Taldeak irekiak daude datorren kurtzorako

686 499 775 (Toby) • tobyngana@hotmail.com • Alperroburu 2, Usurbil

Image: Freepik.com

## Albisteak iruditan

# Afariaren bueltan euskal kantu giro ederrean, ikasturtea agurtzeko

**E**kainarekin batera, ikasturtea agurtzeko unea ikastetxeentzat baita jardunean diren hainbat eragilerentzat ere. Usurbilgo Euskal Kantu Taldearentzat tartean. Bi urteko behartutako isilunearen ostean, plaza- itzuli ziren martxoan, eta ordutik hileroko kantu jirari eutsi diote.

Ezohikoa izan den denboraldia iragan ekainaren 17an borobildu zuten. Ostiralean agurtu zuen urte atipiko hau Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak Patri jattetxean eginiko kantu-afariarekin. Eguraldi bero bezain ederra lagun, urteko egunik luzeenen babesean, Patriko terraza musikaz eta umorez jantzi zuten.

## Irailen gehiago

Oporretara doaz orain. Baina herria euskal abestiez girotzen segi asmo dute baita irailetik aurrera. Bi urteko osasun



Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak ekainaren 17an Patrin ospaturiko kantu afaria.

krisialdiak eragotzi ostean, geratzeko itzuli baitira. Datorren ikasturtean ere, kantu jiran bilduko dira hileroko. Astelehe-

neroko entseguetara ere helduko diete berriz arratsaldeko 18:00etan hasita Agerialdeko musika gelan.

## Laburrean

### Intzidentzia bikoitza

227,79tik 488,12ra, astebeteko epean bikoitzu egin da 100.000 biztanleko 14 eguneko covid19-aren intzidentzia Usurbilen. 24 kasu berri hauteman ditu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak azken astean. Aurrekoan 6 izan ziren. Goranzko bidean baita eskualdean.

### Sareren mobilizazioa

Euskal presoan eta iheslarien eskubideen aldeko hileroko azken ostiraleko mobilizazioa ekainaren 24an, Sarek deituta arratsaldeko 20:00etan Mikel Laboa plazan. Uztailaren 2an eskubideon aldeko kalejira eta zikero jana Askatasuna plazan.

### Udako ordutegiak

Euskotren-ek martxan du urte garai honetako ordutegi berria. Asteburuetan 30 minuturo izango dira tren zerbitzuak. Ekainaren 27tik aurrera liburutegia 9:30-14:00 artean irekiko dute, astelehenetan 17:00-19:00 artean baita. Larunbatetan itxita egongo da.

# noaia

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// [elkartea@noaia.eus](mailto:elkartea@noaia.eus) /// [www.noaia.eus](http://www.noaia.eus)  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariako koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Diseinua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
[publizitatea@noaia.eus](mailto:publizitatea@noaia.eus)

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
[erredakzioa@noaia.eus](mailto:erredakzioa@noaia.eus)



## Gipuzkoako Foru Aldundia





Ugaitz Agirre Zapirain

Ur Martzianoak etorri dira Usurbilera. Ez dira zehazki martzianoak, Uranotik baitira etorriak, alegia, unibertsoaren ipurtzulotik. Beraz, izena itsusia izan daiteke-elakoan, oharra: parentesi oso luzea dator (Uranotarrak? Dirudi uraren aurka egindako plataforma bateko kideak direla. Uraniarrak? Proestatubatuarek irandarrekin nahasi eta suntsiketamasi borako armak dituztela oihukatuko dute ziur. Gainera, u-ra-ni-a-rrak, barrokoan idazten dutela igartzen zaie. Eta latinez? Uranis? Imajinatu: Ave uranis! Morituri te salutant! Eta google itzultzaileak dixit: Agur ipurtzulokoak! Hiltzera doazena agurtzen zaitugu! Parentesitik irteera hiru bi bat:) beste parentesi bat :(zergatik lehen parentesia pozik eta bigarrena haserre dago?) martziano terminoa erabiliko dugu beraiei mentzio egiteko. Bigarren oharra: martziano hitzaren aurretik daitekeelakoan hitza zihoan Estralurtar hitza ere aipatu zen Potxoeneako III. Asanbladan, baina euren hizkuntzan esan ezin diren hitz horietako baten soinu bera omen du.

Absurdooa da bai. Lasarteko bati usurbildar deitzea bezala lasartear hitzak zerbait peioratiboa esan nahi duelako. Hala ere, jostalariak dirudite Uranoko martzianoek, baloia gustatzen zaie. Antropologoak ari dira hori ikertzen



“Konkista gosez zetozela aipatu zuen prentsa sentsazionalistak, baina inondik ere halakorik. Zer den gezurra egiaren prezioan saltzea, alajaina!”.

#### UGAITZ AGIRRE

**“Hala ere, jostalariak dirudite Uranoko martzianoek, baloia gustatzen zaie”**

martzianologorik ezean. Konkista gosez zetozela aipatu zuen prentsa sentsazionalistak, baina inondik ere halakorik. Zer den gezurra egiaren prezioan saltzea, alajaina! Gezurrarekin ere espekulatu daiteke eta. Ai jafadruim Wall Streeten artikulu hau jarri (hauteskundeetako kartelak jartzen diren bezalaxe, kolaurez egindako mejunje-potajea erratz batekin (gain dosifikatuz) eta salerosketa ilun batzuk tarteko, handik egun gutxiren buruan, berezko

prezioa hamaikakoiztu duen.

Barkatu, atzera martxa sartu eta itzuliren naiz bai berriz Euskal Herrira (barkhatu othoi, ez da berrir gertathuren) pi pi pi pi Uranoko martzianoei buruz ari ginen. Herriko jolasak azaltzeko eskatu digute, eta guk baloia hitz txostena burutu dugu. Txostena elebiduna da, euskaraz eta martzianoz. Halere, zuk martzianoz ulertuko ez duzula jakinda (hori mozkortuta zaudenean hitz egiten duzun hizkuntza ulertezina da, Uranoko martzianoarekin zerikusirik ez duena, berau Esne Bideko hizkuntza gastenauekin harremanduta baitago), alferrikako lana da hemen espazioa agortzea (agian artikuluekin berarekin egiten ari garena, baina hori beste eztabaida bat da. Eta zerbait esa-

teko baduzu, esan aurpegira ausartzen bazara ergel zikin alaena! - Ei, ei, ei, lasaitu! Ez zaitez horrela jarri irakurleekin. Beraiek gabe ez gara ezer! -Ez garela ezer? Ez garela ezer? Isilarazteko botoia on).

Baloia Hitz txostena

Beisbol: Jolasteko tokia: dema plaza. Kopurua: nahi adina, baina konpentsatua. Materiala: baloia. Deskribapen sinplifikatua: Dema plazaren ertzean jolasten da eta lerroak gurutzatzen diren puntu bakoitza base bat da. Baloia jokoan egon arte ezin da inor mugitu eta, behin mugituta, ezin da aurrekoa aurreratu (zeren orduan aurrekoa izateari utziko lioke eta aurrekoa beti da aurrekoa, bai?). Baloia joko eremutik ateratzekotan, petrilak mugatutako eremu barruan botea eman ostean izango da. Horregatik, komeni da jaurtitzailak frontoian kokatzea. Horrela, Patri aldera joan daiteke baloia eta hainbat puntu eskuratu. Oharra: baloia San Esteban kalean behera badoa, begiratu ea autorik edo autobusik datorren; batez ere bigarren hauek, behin Kale Nagusi hasierako kalbarioa igarota azeleragailua gozo zapaltzen dute eta. Eraso eta defentsa nola aldatzen diren? Bi aukera daude. Bat: b.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

www.noa.eus

USURBILGO ATARIA

ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859 eta 943 36 13 80

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

# Bertsio gau berritua, jaietako musika eskaintza zabalean

Ahaleginak merezi izan du. Hala adierazi diote Xauxar Txosna Batzordeak eta gazte mugimendutik, bueltan datozen jai hauetarako berreskuratu duten Bertsio Gauaren inguruan. Tradizio luzea du, herriko musikariak besteen abestien bertsioak jotzen jartzen dituen hitzorduak. Oraingoan “ideia berriak biltzea lortu da”, adierazi digute antolatzaileek eta “jende berria animatu da baita ere”. Parte hartzea zabaltzea lortu eta aurpegi berriak erakarri dituzte. Hala, 2022ko edizioan, ez dira soilik egun musika taldeetan dabiltzan herrikideak igoko oholtza gainera, baita hortik at direnak ere. “Nesken parte-hartzea ere nahiko altua izan da”, baloratu dute positiboki. Ekainaren 30ean gauerdia pasata, txosnetan.

## Musika eskaintza zabala

Jaiak egunez bizitzeko ere badiren arren, gautxoriek zeresan handia izaten dute. Haien guztientzat, musika eskaintza zabala iragarri du Jai Batzordeak ekainaren 29tik uztaila-



Usurbilgo ahotsak entzungai jaietako oholtzatik, datozen herriko festetan.

## BERTSIO GAUA

**“Ideia berriak biltzea lortu da. Jende berria animatu da baita ere”**

ren 3ra. Goizaldera arte musikatu dituzten bost parranda gau, bi eremuetan: lehenik frontoian izango dira emandialdiak, segidan Mikel Laboa plazan kokatuko den txosnagunean.

Herrikoen aldeko apustua egin du Jai Batzordeak: Ameba, Viafara, Odolaren Mintzoa eta Rukula igoko dira oholtza-

ra. Anje Duhalde ere bueltan datorkigu frontoira uztailaren 1ean. Eskean Kristo, orain Kristonak ere gonbidatu dituzte, baita bere azken biran murgilduak diren Skasti taldekoak. Skabidean, Perlata, Tzar, Silitia ditugu beste gonbidatuak. Eta eguna argitzerainoko bidea egiten lagunduko dutenen artean, Dj Kixo uztailaren 2an. Bere ostean, egunero izango ditugun txaranga taldeetako bat, kasu honetan herritarrez osatua, Elektroenzefalogramo. Gainerako egunetan, Jaixkipe, Zutik, Laskotxaranga, Matraka,... eta Dj Gorkamendi.

# Sexu erasoen aurkako lanketa, jaien atarian

“Eraso matxistarik gabeko jaiak” helburu hainbat ekimen bideratzen ari da Udala jaiak begira.

Hasteko, sexu erasoen aurkako gida bat jasoko dute herritarrek etxetik etxe. Ekainaren 29tik uztailaren 3ra ospatuko diren festen baitan, bi egunetan sexu erasoen aurkako Emaginen gunea kokatuko dute hilaren 1ean, 17:00-22:00 artean eta 2an 17:00-21:00 artean, ostiralean eta larunbatean beraz, Sagardo Egunean egin zen bezala. Murgibet taldeak bestalde, Beldur Barik gunea jarriko du larunbat gauean, 23:00-03:00 artean.

## Festez gozatzeko eskubidea bermatzeko

Ate joka ditugun jaiak begira bestalde, lanketa saioak ere iragarri dituzte hainbat kolektiboarekin, Sortzen elkarrekin dinamizatuta. Esaterako, Kafe Tertulia Usurbilgo neska\* gazteen talde feministak sare sozialen bidez iragarri zuten, astearte honetan, ekainaren 21ean egitekoa zuten lan saioa, Artzabalen kokatuta da goen gazte lokalean.

Txosna eremuan ariko den pertsona orori parte hartzeko deia egin zieten. “Festaz gozatzeko herritar guztiek duten eskubidea bermatzea

du helburu udalak ekimen horien bidez. Izan ere, festa giroa ez da berdin izaten guztientzat: emakumeek festak askatasunez eta berdintasunez gozatzeko traba gehiago dituzte”. Horregatik, “batik bat, prebentzio lana sustatu nahi du, jaiak begira, erasoak identifikatu, nola saihestu edo halako baten aurrean nola jokatu jakin dezaten herritarrek. Sortzenen saioak udaltzaingoari, gazte mugimenduari, txosna eta jai batzordeari eta ostalariei zuzendutakoak izango dira, eta edukia talde bakoitzari egokitua izango da”.

## Zapiak prestatu

Bueltan datozen Usurbilgo jaietarako zapi koadroduna prestatzen hasi. Lepoaren bueltan jarri eta festetan murgiltzeko gonbita luzatu du Jai Batzordeak.

## Prezio bereziak

### Feriagunean

Anbulatorio ondoko apartamentuak itzuliko da jolas-parkea. Adi, garai batean bezala, Haurren Eguna ospatuko den uztailaren 1ean eta festak amaitu osteko hilaren 4rako prezio bereziak iragarri dituzte bertan.

## Sutegi, erakustokia

Urtean zehar sortutako lanen erakustokian bilakatuko da Sutegi jaien itzulera. Zirriborro tailerreko ikasleak eta jostak tailerrekoen lanak ikusi eta ezagutzeko aukera izango dute hurrengo astean. Sormen gaiekin segita, aurreko bi urteetako Kultur Biran ospatu izan den haur eta gaztetxoek zuzenduriko Kolore Festa ospatuko da ekainaren 30ean.

## Txartelen salmenta

### ■ Zikiri jana

Igandean jarri zituzten salgai Aitzaga Elkartean, uztailaren 2an Askatasuna plazan ospatuko den zikiri janerako txartelak. Bordatxon, Txirristan eta Txiribogan eskuragarri jartzeak dira.

### ■ Gazte bazkaria

Aitzagan jarri dituzte salgai, uztailaren 1ean ospatuko den Gazte Eguneko bazkarirako txartelak. Egunotan itxekoa dute salmenta epea.

### ■ Jubilatuen bazkaria

Uztailaren 3an ospatuko da 14:00etan Atxega Jauregian. Txartelak asteazkenean arte salgai jartzeak zituzten Gizarte Zerbitzuetan eta hiru jubilatutako elkartean.

# Itxaso Santxez: “Ikasketak atzerrian amaitzea erabaki nuen eta Txilera etorri nintzen”

**I**kasketak atzerrian amaitzeko nahiak eraman du Itxaso Santxez usurbildarra Txileko Valparaiso hirira. Hilabete txo batzuk daramatza bertan, eta esperientzia laster bukatuko bazaio ere, NOAUA!rekin partekatu nahi izan ditu orain arte bizitakoak.

## NOAUA! Zerk eraman zaitu Valparaisora?

**Itxaso Santxez:** Ikasketak atzerrian amaitzea erabaki nuen. Zergatik Txilen, zehazki? Bada, ez dakit. Bertakoek ere askotan galdetu izan didate hori, baina ez dakit erantzuten. Argi neukan sei hilabete pasatzeko ez nuela Europan geratu nahi, eta kultura askoz ezberdinagoa zuen lekuren batera joan nahi nuen. Gurasoek ere beti bulztatu naute Hegoamerikara joatera. Herrialde asko daude Hegoamerikan, eta Txile ez dakit zergatik aukeratu nuen, baina agian, euskaldun asko etortzen diren lekua izanik, askotan entzun izan dudalako. Paisaia oso anitza da hemen eta jendea ere erakargarria egiten zait euren izaeragatik.

## Zein ikasketa ari zara egiten?

Energia berriztagarrien ingeniari-tza etxean. Hemen, or-



“Itsas-ingeniari-tza zibila eta ingurune-ingeniari-tza zibila egiten ari naiz Txilen”.

## ITXASO SANTXEZ

*“Paisaia oso anitza da hemen eta jendea ere erakargarria egiten zait euren izaeragatik”*

dea, horrelako gradurik ez dago eta itsas-ingeniari-tza zibila eta ingurune-ingeniari-tza zibila ari naiz egiten. Hemen-gor hezkuntza sistema nahiko

kaotikoa da, orokorrean. Martxoaren 7an hastekoak ginen eta ia hilaren bukaerara arte ez genuen klaserik izan. Hasiera batean, inpresioa egin zidan ematen ari ginenak, ezagutzen ez nituen hainbat termino erabiltzen baitzituzten eurek oso ondo ezagutzen zituztenak. Joan zen urteko eta aurreko apunte batzuk eskatu dizkiet pixka bat eguneratu ahal izateko neure jakintzak. Oraindik

ez dugu amaitu, baina jendeak esaten duenagatik, ez omen da oso zaila gainditzea.

## Pisu batean bizi zara edo ikasle-egoitza batean?

Pisu batean bizi naiz ni. Oso ohikoa da etxe oso batean bizi-tzea denak ikasleak direla. 15 bizi gara etxean; 14 ikasle eta etxearen jabea. Frantsesak, alemanak eta gu bizi gara bertan.

# “Egunerokoan euskaldunekin ibiltzen naiz”

## NOAUA! Egunerokotasunean, euskaldun edo espainiarrekin ibiltzen zara edo nazioarteko jendearekin gehiago?

**Itxaso Santxez:** Euskaldunekin batez ere. Txilera etorri baino lehenago, harremana egin nuen euskaldun batzuekin eta hortik aurrera planak egiteko elkartzeko gara. Bidaia-tzerako garaian, gutxi izatea egokiago iruditu zitzaigun horrek ekar ditzakeen erraztasunez

aprobetxatzeko, dela auto-stop egiteko edo lo egiteko lekua bilatzeko. Bidaia horietan txiletarrak ere ezagutu ditugu eta haiekin ere planak egiten ditugu. Oso jende irekia da eta as-teburu pasa batzuk egin ditugu eurekin. Txileko hegoaldera bidaian joan ginenean, txiletarrak ezagutu genituen eta maputxeak ezagutu nahi genituela esan genien. Batzuek etxera gonbidatu gintuzten familiarte-

ko maputxeak zituztelako. Horiekin ere harremana mantendu dugu. Hala ere, egunerokoan euskaldunekin ibiltzen naiz. Erdaldunak ere badaude, baina haiek beste zonalde batera joan dira gehiago.

## Etxean badituzue atzerri-tarrak ere. Horiekin ingelesez moldatzen zarete?

Ez, gazteleraz. Haiei asko kostatzen zaie gazteleraz hitz egi-

tea eta kulturalki ere ezberdinak gara. Zerbait esan eta interpretatzeko oso modu ezberdina dute eta tonuarekin ere nahastu egiten dira. Ondorioz, euskaldunengana gehiago jotzen dut, erosoago zaidalako eguneroko komunikazio hori.

Gazteleraz ere ondo moldatzen naiz, eta hizkuntza niretzat ez da arazo izaten ari.



# “Nahikoa europarra da hemengo kultura eta aldaketa handiegirik ez dut nabaritu”

**NOAUA! Nola definituko zenituzke txiletarrak?**

**Itxaso Santxez:** Kalean norbaiti zerbait galdetu eta berehala hasten zaizkigu hizketan. Lekuren batera joan nahi dugunean, beti eskaintzen digute laguntza eta kontuz ibiltzeko esan. Bidaian ezagutu ditugunek etxera gonbidatzen gaituzte. Oso irekiak dira, baina Txile oso europarra da, Hegoamerikako europarrena. Serioagoak dira gainontzekoak baino, baina badute esentzia latino hori. Ekuador edo beste herrialde batera joanez gero, esentzia horrek indar gehiago du, baina hauek ez dute erabat galdu. Hala ere, gure harremantzeko moduarekin eta izaerarekin ez daukate zerikusirik. Oso irekiak dira.

**Haien bizimodua nolakoa da?**

Gurearen oso antzekoa dela esango nuke. Nahikoa europarra da hemengo kultura eta aldaketa handiegirik ez dut nabaritu. Hala ere, sentitu dut ikasketak ez direla lehentasuna inorentzat. Sentsazio huts bat izan da, neure esperientzian oinarritzen dena; agian, bes-



“Lekuren batera joan nahi dugunean, beti eskaintzen digute laguntza eta kontuz ibiltzeko esan”, azaldu digu Itxaso Santxezek.

## ITXASO SANTXEZ

**“Gure harremantzeko moduarekin alderatuta, txiletarrak oso irekiak dira”**

te norbaitek bestelako zerbait esango luke. Kontua da, jende askok unibertsitate ikasketak egingo baditu, lana egin beharra daukate nahikoa diru lortzeko. Langabezia tasa ere oso esanguratsua da eta kalean

denbora gehiago ematen dute ahal dutenetik dirua ateratzeko. Gure langabezia eta hemengo oso antzekoak dira, eta aurre egiteko moduak ere bai. Horrez gain, emakume askok oso gazte izaten dute lehen haurdunaldia, eskola garaian kasu askotan. Aldaketa horiek kontuan izan behar dira, baina gainontzekoan nahiko antzekoa da.

**Etxetik ere zerbait falta botako duzu.**

Etxekoen babesa eta goxotasuna botatzen ditut faltan, batez ere. Egoera berri askoren aurrean aurkitu naiz azken aldian, dokumentu asko bete beharra, esaterako. Kasu horietan, askotan ez dakit norengana jo eta etxean, berriz, gurasoek beti laguntzen didate horrelako kontuekin. Orain, horrelako gauzen aurrean pixka bat galduta sentitzen naiz, baina bakarrik egiten ikasten ari naiz eta horrek aurrerago ere balioko dit. Ez dit eragin etxera iritsi eta lan asko eginda egoteak dela jana-ria, dela garbiketa. Erosotasun horrek ez dit eragin, baina bai goxotasun faltak.

## “Maite ditudanengana itzultzeko beharra dut”

**NOAUA! Zer asmo duzu datorren urterako?**

**Itxaso Santxez:** Datorren urtea oraindik kolokan daukat. Master bat egin nahi izanez gero, erabakia berehala hartu beharko nuke eta hemen ez daukat burua horretan jartzeko prest. Beste gauza batzuetan pentsatzen ari naiz, oraingo esperientzia bizitzean. Hortik aurrerakoak oraindik lotzeke ditut. Lanetan hastea pentsatu dut horrekin dirua irabazi eta mas-

ter bat egiteko. Bien bitartean, hizkuntzak ere ikasiko nituzke neure kurrikuluma indartzeko. Bestela, ikasten jarraitzeko asmoa daukat edo hori egin nahiko nuke, behintzat.

**Txilen geratzeko asmoa duzu edo etxera itzuliko zara?**

Usurbilera itzuliko naizela uste dut. Ez balitz etxean ditudan senitarteko eta lagunengatik, hemen geratuko nintzateke denbora gehiagoan. Hemen bakoitzak berea egiten du eta

ez daukate inolako aurreiritzirik. Asko gustatzen zait hori, eta ematen duenez, jendea oso pozik bizi da. Etxean ikasketak eta lanak jendea oso estresatuta dauka eta alaitasun hori galdu egin da nolabait. Txileko gizartea oso ezberdina da, eta alde horretatik hemen geratuko nintzateke. Ingeniaritzarekin jarraitzeko, proiekturen bat egingo nuke gustura hemen, lan asko baitago hemen. Hala ere, ni herriko pertsona naiz eta hiriak handiegi egiten

zaizkit. Sekula baliorik eman ez diodan kaleko segurtasuna oso garrantzitsua dela konturatu naiz. Tentsio puntu batekin ibiltzen naiz hemen kalean, izan egunez, izan gauez, eta hori nekagarria da. 2019ko gizarte tentsioen ondorioz, kalean hilketak eta bahiketak areagotu egin dira, eta estatua zikindu dute. Maite ditudanengana itzultzeko beharra dut. Gainontzekoan, babes hori izango ez banu, bertan geratuko nintzateke.

# Elkargune berria Aginagan

**I**kasgelan ereindakoa bistaratu dute ikasturtea amaitu aurretik Aginagako eskolakoek. Eskolatik gora, hilerria bidean dagoen eremuan baratza gunea ireki dute. Txorimalo ederra egokitu zuten, eulientzako etxea. Desioak idatzi, kutxa batean sartu eta lurperatu zuten, eskolako komunitateko kide diren gaztetxo, hezitzaile eta senideak bildu zituen irekiera ekitaldian. “Ahaztua zegoen lursailari bizia ematen jardun duzuen familia guztiei”, ongi etorria eta esker-rrak eman zizkieten aginagarren bilgune berri izan nahi duenera. “Orain baratza dugu, eta bertan ditugu landareen modura hazten eta hezten goaz, gure jakintzak ereiten eta bizipenak ureztatzen”.

## Gure baratza

Baratzaren aldarri  
da gure kantua  
ezagutu deizuen

gure proiektua

Eskolaren ondoan  
eliza atzean  
gure baratz polita  
aurkitzen da bertan

Guztion ardura da  
baratzako lana  
beraz nahi baduzue  
hartu porru bana

Baratzak ditu gune  
berde ta xumeak  
haztegia egiten  
dabiltza umeak

Gune arriskutsuak  
[e]ta aldapa dagola  
Bertan agertzen dira  
zenbait karakola

Lur zabala daukanez  
badugu tokia  
herria elkartzeko  
gune egokia



Aginagarren elkargunea izan nahi du ikasturte amaieran, eskolatik hilerria bidean dagoen eremuan ireki duten baratzak.

# UdaFest-etik San Juan gauera Zubietan

**U**da garaia ongi etorria ematen dabiltza asteotan Zubietan. Hilabete hasieran, UdaFest ekimen astea antolatu zuen guraso elkarteak; herri kirolak, Kontu Kantoiko lagunen eskutik izandako ipuin kontaketa saioa, apar-festa... Jai giroko ekitaldi arratsaldearekin borobildu zuten. Tartean, Zubietako plaza dantza taldekoek urtean zehar eginiko lanketa ere bistaratu zuten.

## San Juan gaua

Herriaren txanda orain. Uda giro betean sartu berritan helduko zaigun San Juan gaua elkarrekin igarotzeko gonbita luzatu du Zubietako Lantzenek. Plazan bildu eta azken bi urteotan nahi eta behar bezala ospatu ezin izan den sutzarra-

ren bueltan urte garai honi harrera egitera deitu dute. Presaketak arratsaldean hastekoak dituzte. Bitarte hori, jolaserako ere baliatuko dute. Elkarrekin afaldu eta sutzarra piztekotan dira gauean. “Gau-giro musikatua” iragarri du Zubietako Lantzen bilguneak.

## Ekainak 23, osteguna

- 17:00 Egur-tontorra osatzea.
  - 18:00 Pin-pon mahaia eta hainbat jolas.
  - 21:00 Afaria.
- Eskatu zure ogitartekoa 682 680 997 telefono zenbakira idatzita: patata-tortila edo xolomoa piperrekin. Sagardoa, postrea eta kafea egongo dira.
- 22:00 Sua piztea eta gau-giro musikatua.
- Antolatzailea: Zubietako Lantzen.



UdaFest ekimen astea antolatu zuen guraso elkarteak hilabete hasieran.



# Komunitatea bilduta, agur ikasturteari

**E**lkartasunak, memoria historikoak eta jai giroak, denetarikoeenuek tartea izan dute ikasturtea agurtu berri duen Udarregi Ikastolak azken asteotan. Ikastola Egunari eskainitako ekimen astea, frontoian hasi eta Dema plazaraino luzatu zen Hurbilago elkarteak sukaldaturiko 500 lagun baino gehiagorentzako bazkari batekin borobildu zuten ekainaren 11n.

Aurretik, HH-koek kantaldi ederra eskaini zuten Mikel Laboa plazan eta LH zein DBH-koek goiza jolasean igaro zuten: ur jolasetan, dantzan, mahai-joko anitzetan...

## Elkartasuna eta memoria

Aurreko egunetan, DJ Gorka-Mendik giroturiko arratsaldea bizi izan zuten dantzan. Baina aipatu moduan, elkartasunak



Ikastola Egunaren baitan, Koxme Yagüez Beristain 1936ko gerran fusilatutako maisua oroitu zuten.

ere bere txokoa izan zuen; klasean bideraturiko proiektu baten haritik, Inurri elkarteak laguntzeko azoka solidarioak eman dio hasiera aurtengo Ikastola Egunari lotutako eki-

men zikloari. Eta 1936ko gerrari lotutako memoria historikoa berreskuratzeko lanean ari dira baita.

Faxistek fusilatuetako usurbildar bat, Zubietako eskolan

maisua zen Koxme Yagüez Beristain omendu eta ikastolan bere aldeko oroimen txokoa ere zabaltu dute. Eraikin gorrian duzue bere alde jarria duten plaka.

# Itzulera jendetsua



Ikastola Egunaren itzulera jendetsua izan da, Besteak beste, ekainaren 11n frontoitik Dema plazara luzatu zen 500 lagunetik gorako bazkaria ospatu zuten.

# “Harria altxatzeko indarra behar da, baina teknika da garrantzitsuena”

**L**ur Errekondo txikitatik nabarmendu zen esku-baloian. Lesioek ordea, ez dute bakean utzi. Orain gutxi harria jasotzen hasi zen. Gustura ikusi zuen bere burua eta dagoeneko hainbat plaza egin ditu. “Probatu ditudanen artean, harri biribila izan da gehien gustatzen zaidana”.

**NOAUA! Harriak ahalegin fisiko handia eskatzen du. Ondo neurtu beharko dira entrenamenduak eta lehiaketa egunak. Astero, zenbatetan entrenatzen duzu batzaz beste?**

**Lur Errekondo:** Kontuan hartuta harriak pisu handia duela eta errepikapen asko egin behar izaten ditugula entrenamendu bakoitzean, gorputza ahalik eta freskoen izateko astean bitan entrenatzen dugu, gutxi gorabehera.

Txapelketen aurreko astean ahalik eta gutxien entrenatzen dugu. Egun horietan entrenamendu saio bakarra egiten dugu. Harria altxatzeko indarra behar da, bai, baina teknika da garrantzitsuena. Zenbat eta errepikapen gehiago egin, indarra ere agortu egiten da eta horrelakoetan teknikak asko laguntzen digu.

Alderdi aerobikoa lantzea ere garrantzitsua da, gainontzean erraza da nekatu eta erritmoa galtzea. Behar besteko haus-



Lur Errekondoren esanetan, “txapelketa baten aurretik oso garrantzitsua da gorputza behar bezala zaintzea”.

## LUR ERREKONDO

**“Garrantzitsua da alderdi aerobikoa lantzea. Gainontzean, erraza da nekatu eta erritmoa galtzea”**

poa izateko, ezinbestekoa da osasuntsu egotea. Aparte egin beharreko prestaketa hori oso garrantzitsua da.

**Txapelketa baten bezperan behintzat, parrandarako tarte gutxi izango duzu. Zu ari zaren mailan aritzeko, asko zaindu beharra al dago?**

Ni oraindik berria naiz baina baietz esango nuke. Freskoago egoteko, ohitura egokiak behar dira, bai elikadurari dagokionez, bai parranden gaiari dagokionez.

Oso garrantzitsua da txapelketa baten aurretik gorputza

behar bezala zaintzea.

**Pandemiak zein neurritan baldintzatu du zure kirol jarduerak? Dagoeneko bueltatu zarete pandemia aurreko egoerara?**

Orain gutxiko txapelketak ikusita, esango nuke normaltasunerako itzultzen ari garela. Eta gainontzeko kirolekin ere, berdin. Erabateko normaltasun horretara laster itzuliko garela uste dut.

## “Bost ebakuntza egin dizkidate belaunetan”

**NOAUA! Eskubaloian urte asko egin dituzu. Jokalari onazinen gainera. Zergatik utzi zenion eskubaloian jokatzea-ri?**

**Lur Errekondo:** Ez dut %100ean utzi... Lesioen ondorioa izan da erabakia. 16 urte nituenean hasi nintzen

lesio gogorrak izaten.

Bost ebakuntza egin dizkidate belaunetan eta sorbaldan ere ebakuntza bat egin zidaten. Sorbaldako lesioa eta gero hiru urte egin nituen geldia, eta belaunekin ere denbora asko eman dut jokatzeke aukerarik gabe.

Neure egunerokoa hori izan da: jokatu pixka bat eta lesionatu denbora luzez... Gaztetan erritmo hori jarraitzea ez da horren zaila, baina adin batekin aurrera ez da posible. Eta ez fisikoagatik bakarrik.

Behin lanean hasita eta gurascen etxetik joan ondoren,

ezin dugu beti bajak eskatzen ibili. Epe luzerako kontratuak lortzea ere zaila da egoera horretan, eta bestelako norabidea hartu beharra dago.

Osasunari erreparatuta ere, gelditu beharra neukan jada.



# “Herri kirolak oso maskulinizatuak egon dira orain arte”

**NOAUA!** Harrijasotzaile gisa lehen urratsak eman dituzu. Plazan, lehiakortasun handia dago ala lagun giroan aritzen al zarete?

**Lur Errekondo:** Plaza gutxi egin ditut orain arte, baina plazan egon naizenetan oso giro polita ikusi dut eta asko gustatu zait. Nirekin batera neure eskolako jende gehiago plazaratu zelako agian... Baina lehiakortasuna egon badago. Lehia lehia da eta irabazten saiatu behar du gutako bakoitzak. Hala ere, laguntasuna da nagusi. Asko animatzen dugu elkar. Familiarteko giroa eta goxotasuna sortzen dira.

**Herriak ez dira denak berdinak. Zein da gustukoen duzuna?**

Orain arte probatu ditudan artean, gehien gustatzen zaidana biribila da. Eskubaloian bezala, itsasgarri moduko bat erabiltzen da eta hor lotura bat badago bi kirolen artean. Erronkarik handiena, berriz, kubikoa da. Zailena da. Baina gure entrenatzaile Joxe Ramonek dioen bezala, behin ikasita errazena hura da. Pixkanaka hobetzen ari naiz eta asko gustatzen zait.

**Herri-kiroletan mutilak izan dira nagusi orain gutxi arte. Badirudi gauzak aldatzen ari direla. Eta zaleak, herri-kiroletako zaleak, zer nolako harreara egin die emakumeei? Zein inpresio hartu duzu zuk?**

Agerikoa da nahiko kirol maskulinoa izan dela orain arte. Profil ohikoenak gizon indartsu handiarenak izan dira. Emakumeak ere egon baziren, nahiz eta gutxiengo bat izan.

Orain, profil horiek aldatzen hasi dira. Belaunaldien arteko jarraipenaren ondorio



Lur Errekondo gizarte hezitzailea da ofizioz. “Harrera etxebizitzetan lan egiten dut gazteekin. Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku dauden gazteekin aritzen naiz”.

## LUR ERREKONDO

**“Plaza gutxi egin ditut orain arte, baina egon naizenetan oso giro polita ikusi dut eta asko gustatu zait”**

izan dira kirol hauek neurri handi batean, baina orain es-

kolak ireki dituztenez, jende askok aukera izan du probatu eta izena emateko. Alde horretatik, jende berria hurbildu da herri-kiroletara.

Gero eta emakume gehiago daude. Pentatloietan dezente, eta aizkoran zein harria jasotzen gauza bera. Herri-kirolei beste buelta bat ematen ari dira partehartzaileak eta

ikusleak.

Zaletuei dagokionez, askok oso barneratuta daukate tradizioa eta ikusten badute neska bat ohiko estereotipo horretatik at, txantxak egiten hasten dira edota harridura erakusten dute. Horregatik iruditzen zait oso ondo dagoela betiko profiletik ateratzea.

## Laburrean

### “Oporretarako toki bat? Girona”

**1. Zenbaki bat.**  
18.

**2. Kolore bat.**  
Gorria.

**3. Kirolari bat.**  
Cristina Neagu.

**4. Zurea ez den kantxa bat.**  
Gioriko pista.

**5. Pelikula bat edo telesail bat.**  
Anne With An E.

**6. Liburu bat.**  
La confesion (John Grisman).

**7. Abesti bat.**  
Let the Bad Times Roll.

**8. Sare sozial bat.**  
Instagram.

**9. Usurbilgo txoko bat hautatu ezazu.**  
Plaza.

**10. Santixabelak ala Sagardo Eguna?**  
Sagardo Eguna.

**11. Oporretarako toki bat aholkatuko diguzu?**  
Girona.

# Luken Arkarazo: “Jai Batzordea ez da mahai egonkor bat, zoritxarrez”

Egun gutxi barru hasiko dira herriko festak. Pandemia ondorengo lehenak. 2020an eta 2021ean, Kultur Birak bete zuen jaietako hutsunea. Zailtasunak zailtasun, eta jende askoren aha-eginari esker, arnagune paregabea izan zen Kultur Bira. Orain ‘normaltasuna’ itzuli den honetan, ohiko jai ereduaz gozatzeko aukera izango dugu. Ohiko jai ereduak dituen argi eta itzal guztiekin.

**NOAUA! Jai Batzordeak egin du bere lana. Ez da bilera gehiago izango. Dena prest duzuen seinale?**

**Luken Arkarazo:** Dena daukagu lotuta. Egitarauko ñabarduren bat edo beste dago zintzilik, gainontzean dena lotuta dagoela esan daiteke.

**Aurtengo egitarauan ba al da berritasunik? Herri-kiroletan egongo da aldaketa handiena akaso.**

Garbi esan behar da Kultur Biraren dinamikari ez diogula jarraipenik eman ahal izan. Kultur Biran praktikan jarritakoa ezin izan dugu Jai Batzordean aplikatu. Diskurtsoan saiatu gara aldatzen baina organikoki aldatu ez garenez, eta logika zaharrekin jarraitzen dugunez,



Jaien bezperan “ia dena lotuta dugu”, Luken Arkarazo Kultura saileko arduradun politikoak azaldu digunez.

## LUKEN ARKARAZO

***“Kultur Birako oasia eta gero, berehala jabetu ginen ezinezkoa izango zela benetako batzorde bat osatzea”***

ez dugu Kultur Birako dinamika hori errepikatzerik izan: asanblada komun bat non denok parte sentitzen ginen eta denok denona antolatzeke gai izan ginen.

**Jai Batzordea eredu zaharrera**

**itzuli da hortaz.**

Hori da. Non Udalak dirua banatzen duen eta partaide bakoitza bere ekimen propioa lotzera etortzen den.

Gainontzean, berritasunak egon badaude. Urteotan herri-kirolak antolatu dituzten horiek pauso bat albora eman dute eta beste lagun batzuk sartu dira. Kultur Biraren antolaketa lanetan aritu izan direnak. Lehia mantenduko da baina ikuspegi herrikoi bat izango dute herri-kirolek. Herritarren arteko lehia izango da eta idi-demak alde batera utziko dira.

**Bi urte eta gero, zerk egin du kale?**

Jai Batzordea ez da mahai egonkor bat. Bileraz bilera aurpegi aldaketa asko eman da aurrean. Eragile bakoitzak bere ekimenaren bermea lortu orduko, interes guztia galtzen zuen eta ez zen hurrengo bilera etortzen. Horrela oso zaila da benetako talde eragile bat sortzea, zilegitasuna izango duen batzorde bat eratzea... Kultur Birako oasia eta gero, berehala jabetu ginen ezinezkoa izango zela benetako batzorde bat osatzea.

## “Ostiralean eta larunbatean puntu morea egongo da martxan”

**NOAUA! Bi urtez jairik ospatu ezin izan gara. Gogobiziz egongo da jendea. Kontu hau kezkaekin bizi al duzue udaletxean?**

**Luken Arkarazo:** Kezka egon badago. Dena den, pare bat hilabete luze daramatzagu normaltasunezko jaiak bizitzen. Txosnak itzuli dira han eta hemen. Nik behintzat ez

dut kezka bereziarekin bizi.

Azpmarratu behar da herriko talde feministatik iritsi zaigun hausnarketa. Gazte Egunean gertatu zen erasoaren harira, protokoloarekin zantzak sortu ziren eta guregana jo zuten. Horren harira, hausnarketa saio ezberdinak jarri ditugu martxan, protokolo orokor bat osatu nahian.

**Lanketa bat egiten ari zarete.**

**L. A.:** Jai Batzordearekin, txosna batzordearekin, udaltzainekin eta tabernetako zerbitzariarekin ari gara lanketa bat egiten, eraso sexisten aurrean nola jokatu argitzeko. Iparorratz berdina izan dezagun denok.

Aurtengo Sagardo Egunean egin zen bezalaxe, jaietan ere

puntu morea jarriko da. Bi funtzio nagusi izango ditu: prebentzio-lana (funtzio komunikatiboa, protokoloa zein den azaltzeko) eta interbentzio-lana (eraso baten aurrean, eurak egingo diote aurre egoerari, modu profesionalean). Puntu morea ostiralean eta larunbatean egongo da martxan.



# “Kultur Birak kulturaren alderdi soziala aldarrikatzeko balio izan zuen”

**NOAUA! Pandemiaren erruz jaiak bertan behera utzi behar izan ziren 2020an eta 2021ean. Egoerari aurre egiteko asmoz, Kultur Bira jarri zen martxan. Garai ilun hartan Kultur Bira argitasun izpi bat izan zen, ezta?**

**Luken Arkarazo:** Kultur Biraren analisia egiteko, ‘Sortuz bakar-dadea isolatuz’ egitasmoa ekarri behar da gogora (pandemiaren lehen itxialdian egin zen kultur eskaintza digitala). Jende askok hartu zuen parte eta arratsaldero lagun asko elkartzen ziren pantailaren bestaldean, emisioa noiz hasiko zain. Pandemia betean, kulturaren alderdi soziala aldarrikatzeko balio izan zuen eta izugarria izan zen. Kultur Bira horren segida izan zen.

**Kultur Birak bi edizio izan zituen eta bietan jende asko inplikatu zen, ezta?**



Kultur Biraren analisia egiteko, ‘Sortuz bakardadea isolatuz’ egitasmoa ekarri behar da gogora”.

## LUKEN ARKARAZO

**“Kultur Biraren iazko edizioan, auzo guztietako jai batzordeak inplikatu ziren”**

2020an, pandemia betean, Jai Batzordeak Santixabelak bertan behera uztea erabaki

zuen. Lau katu geratu ginen baina zerbait egiteko gogoz geunden. Kultur Bira martxan jartzeko, laguntza eskatu genien auzoetako jai batzordeei. Lehen aldiz, Usurbilgo festak usurbildar denen artean antolatu ahal izan genituen. Iazko edizioan batez ere, auzo guztietako jai ba-

tzordeak inplikatu zirelako.

**Dena den, Kultur Birak gauza on batzuk utzi ditu, ezta? usurbilkultura.eus/ web orria, esate baterako.**

Erreminta ederra da. Gauzak azkar ahazteko joera dugu baina lan handia hartu genuen web orria martxan jarri ahal izateko. Usurbilgo errolda hartu genuen eta ekitaldien sarrerak banatzeko garaian errolda lehenetsi genuen. Aforoa mugatua zegoenez, ekitaldi bakoitzean lehentasun mailak zehazteko aukera zegoen, pentsa... “Sarrera demokratikoak”, Garako kazetari batek halaxe definitu zuen Kultur Birak ezarri zuen sistema.

Denborarekin ahaztu egiten dira kontu horiek denak eta jende askorentzat usurbilkultura.eus sarrerak saltzeko web orrialde bat gehiago da orain.

# “Usurbilen sormenak zer nolako garrantzia duen erakusteko balio izan zuen ekainaren 5eko Kultur Azokak”

**NOAUA! Eratu berria den Usurbilgo Kulturguneak ere Kultur Biran du sorburua, ezta?**

**Luken Arkarazo:** Kultur Biraren bi edizioetako antolaketan elkarrekin aritutako taldetxo batek abiarazi zuen Kulturgunearen sorrera ekarri duen partehartze prozesua. Ekainaren 5eko azokan aipatu genuen bezala, Kultur Birak argi erakutsi zigun elkarrekin lanean gauza asko lor ditzakegula, banaka inoiz lortuko ez ditugunak.

**Ekainaren 5eko Kultur Azokak Usurbilgo Kulturgunea aurkezteko balio izan zuen. Jende asko batu zen.**



“Kultur Birak argi erakutsi zigun elkarrekin lanean gauza asko lor ditzakegula, banaka inoiz lortuko ez ditugunak”.

**Egunak eman zuenarekin pozik al zaudete?**

Bai, jende pila bat batu zen

gainera. Ez nuen espero, inondik inora ere.

Gauzak diren bezala, parte-

hartze prozesu guztietan bezala, hau ere oso fuerte hasi zen. Saioz saio ordea, partaidetzak behera egin zuen. Egitasmoa abiarazi genuenok geratu ginen eta beste lauzpabost lagun. Hala ere, Kulturgunea plazara atera behar genuela erabaki genuen eta hortik sortu zen ekainaren 5eko azoka antolatzearen ideia. Azoka izena ipini genion baina Usurbilgo kulturgintzaren agerraldi bat izan zela esan daiteke. Eta hori ere inportantea da. Durangoko Azoka txiki bat izan beharrean, Usurbilen sormenak zer nolako garrantzia duen erakustea eta kulturgile guztiak elkartzea.

# Joan Mari Torrealdai ikerketa beka aurkeztu dute, “haria eten ez dadin”

**B**i urte beteko dira uz-tailaren 31n Joan Mari Torrealdai zendu zenetik eta “bere bizitza osoan aritu den horretan sakondu asmoz”, “euskalgintzan eta kulturgintzan, arlo akademiakoan, ikerkuntzan eta arlo sozialean” alegia, Usurbilgo herrikidearen izen abizenak dituen beka deialdia sortu dute Usurbilgo Udalak eta 2017az geroztik Jakin Jardunaldia antolatzen bidelagun duen Jakin fundazioak. “Torrealdaik ondo merezia du beka honen antolakuntza”, Jakin-en zuzendari Lorea Agirreren esanetan.

## Etorkizunera begira

“Kultur ikerketak eta egitasmoak sustatzeko xedea du, Torrealdaik berak jorratu izan dituen esparru guztietan”, iragan asteko aurkezpenean Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak azaldu zuenez. Ikerlaria ere bazenez Torrealdai, berak egiten zuen moduan, “ikertzea beti



Joan Mari Torrealdai ikerketa bekaren sustatzaileak (Udala eta Jakin) eta Joan Mariren senideak.

## JOAN MARI TORREALDAI IKERKETA BEKA

**“Kultur ikerketak eta egitasmoak sustatzeko xedea du”**

zentzu batekin, praktikara, herria eta etorkizunera begira”. Agirreren esanetan hain zuzen, “horrelaxe nahi du izan beka

honek, ikerketa bultzatu baina baita ere ikerketa horren herriratzea, sozializatzea eta transmisioa, beti katea ez dadin eten”.

Ikerketa beka hau Jakin-ek eta Udalak sinaturiko lankidetza hitzarmenetik dator. “Euskal Herriari beste ekarpen bat egiteko bokazioz jaiotzen da egitasmo hau”, alkatearen

esanetan. “Ikerketan, herri-gintzan, dibulgazioan eta batez ere etorkizunari begira”. Eta Torrealdairen hitzak ekarri zituen gogora Solaberrietak. “Izatea ekitea da eta egiten duguna bagara, garaiko egoera aztertu eta etorkizunerako bideak planteatu behar ditugu”. Bekak horretarako bitartekoa izatea nahi dute.

## Gaurko eta biharko euskaraz eta kulturaz

Torrealdairen senideak batu zituen aurkezpenak. Haien izenean Joan Mariren seme Manexek hartu zuen hitza eskerrak emateko. “Oso pozik gaude, seguru gaude Joan Mari bera ere asko poztuko zela, azken batean bere bizi osoan egindako lanari segida emateko modua baita hau”, bere izena eta lana oroitzeko modurik onena, senideen esanetan.

## Etorkizuneko irakaspenen bila

Euskalgintzaren izaera, zergatik eta zertarako euskaldun izan, euskara batuaren estatua eta sozializazioaren beharra, liburugintzaren ikerketa,



Joan Mari Torrealdai ikerketa bekaren aurkezpen ekitaldiko irudia.

euskararen zentsuraren gaineko ikerketa eta euskarazko komunikabideak. Joan Mari Torrealdai ikerketa bekaren oinarriak dituzue. Aurtengorako gaia,

“euskara eta kultura gaurko eta biharko gizartean”. Galdera nagusi bat abiapuntu duela: “nola heldu behar dio kulturgintzak biharko egunari?”. Torrealdairen

ikerketa gaiak soilik ez, ikerlanotara hurbiltzeko modua ere balioetsi nahi dute, “beti joera berrien ehizan”.

Horregatik, Jakin-etik adierazi dutenez, euskarazko kulturgintzan dauden eztabaidak, “zer esperientzietatik atera daitekeen etorkizuneko irakaspenak, hori da bilatzen duguna”.

Lanak banaka edo taldean aurkeztu ahalko dira, urriaren 24a baino lehen jmtbeka@jakin.eus helbidean. Beka deialdiko irabazleak bere ikerlana lantzeko 18 hilabeteko epea izango du eta 14.000 euroko ordainsaria. Informazio gehiago jakin.eus atarian.



# Euskara eta aisialdiko udal dirulaguntzak

**D**eialdion oinarrien berri ekainaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jaso daiteke. Eskaerak ekainaren 27tik uztailaren 8ra bideratu ahaliko dituzte udal erregistroan edo usurbil.eus atarian, 16 urtetik gorako Usurbilen errol-daturiko herritarrek.

## Euskara ikasleentzako dirulaguntza deialdia

### ■ Baldintzak:

- Usurbilen erroldatua egotea.
- Ikastaro osoan gutxienez %80ko asistentzia izatea (autoikas-kuntzaren kasuan aprobetxamendua ziurtatzea).
- Gutxienezko aprobetxamendua gainditzea, euskaltegiak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharrekoa.
- Diruz lagunduko diren ikastaroak:
- 2021eko irailaren 1etik 2022ko



**Ekainaren 27tik uztailaren 8ra, bi asteko tartea izango dute interesdunek euskara eta aisialdiko udal dirulaguntza eskaerak bideratzeko. Laguntza hauei esker, Usurbilen euskaraz doan ikasi daiteke.**

abuztuaren 31 artekoak.

-Ikastaro motak: HABEk homologaturikoak eta ez homologatuak.

■ Emango den dirulaguntza kopurua: matrikula kostuaren %100a (600 euroko mugarekin), eskaerak aurkezturikoen artean,

baldintzak betetzen dituztenek.

## Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako dirulaguntza deialdia

■ Dirulaguntza jasotzeko bal-

dintzak:

- Usurbilen erroldatua egotea.
- Ikastaroa euskaraz izatea eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea.
- Ikastaroaren alderdi teorikoa gainditzea eta araututako gehienezko epearen barruan titulua lortzea (araututako epearen barnean titulua lortu ezean, itzuli egin beharko zaio udalari jasotako dirulaguntza).
- Diruz lagunduko diren ikastaroak:
- 2021eko uztailetik 2022ko ekainera egindako aisialdiko begirale edo zuzendari izateko ikastaroak.

■ Emango den dirulaguntza kopurua:

- Begirale ikastaroa: matrikularen % 50 (gehienez ere 250 euro).
- Aisialdiko zuzendari ikastaroa: matrikularen % 50 (gehienez ere 250 euro).

begi•bistan begi-bistan.com

**INOIZ EZ DA JAITSIERA BAT HAIN DIBERTIGARRIA IZAN**

JEITSI ORIA  
SENTITU NATURA  
BAKARRIK EDO NORBAITEKIN,  
ZUK ERABAKI

**657 79 46 77**  
info@begi-bistan.com

ERRESERBATU HEMEN

EUSKADI  
BASQUE COUNTRY

**HHI-EPA USURBIL  
HELDUEN ESKOLA**

**Matrikula epea**  
ekainaren 22tik 30 arte  
(aldeaz aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08)

• **HEZKUNTZA OROKORRA**  
(Oinarriko kultur formakuntza: Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa.  
Kalkuluan hastapena eta hobekuntza. Oinarriko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlaziozko mugimendu artistikoak...)

• **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)

• **GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT**

• **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR**

**ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 info@epalasarte.eus**

# Euskaraldira bidean

Euskaraldiko prestaketen hasiera Usurbilera ere heldu da. Maiatza amaieran egin zuten batzordea eratzeke lehen bilkura Potxoeanean. Bestalde, irailaren 28an zabalduko dute norbanakoen-tzat, Ahobizi zein Belarriprest moduan urte amaieran egingo den ekimenaren hirugarren ediziorako izena emateko epea; entitateentzat ordea irekia dago jada euskaraldia.eus atarian. Tartean Usurbilgoentzat.

Albiste honi atxikia duzuen talde argazkian besteak beste, 3. Euskaraldian parte hartzeke prest diren hainbat entitate; Udarregi Ikastola, Zumarte Musika Eskola, NOAUA! Kultur Elkarte, Usurbilgo Udala, Ta Puntu, Etumeta AEK euskaltgia, Kabiene elkarlan gunea, Elhuyar, Ziortza Gazte Elkar-tea, Usurbil Kirol Elkarte, Sai-zar sagardotegia...

Entitate hauetan guztietan nahiz hurrengo aste zein hila-beteetan izena emango dutene-k, ariguneak sortu beharko dituzte, alegia, euskaraz lasai aritzeko gunek. Horixe bai-ta, Euskaraldiaren helburua; hizkuntza ohituretan eragitea, euskararen erabilera sustatzea.

## Estreinaldiko ilusiotik osasun krisialdiko bigarren ediziora

2018an egin zen estreinako aldiz. Orduko hartan norbanakoen arteko ariketa izan zen; 1.333 usurbildarrek eman



Entitateentzat irekita dago izen-ematea, euskaraldia.eus atarian.

## EUSKARALDIA

**“Aurtengoan ere norbanakoen nahiz entitateen izen-ematea sustatuko du Usurbilen Euskaraldia bideratzen ari den batzordeak”**

zuten izena, 1.110 Ahobizik eta 223 Belarriprestak. Ilusioa piztu eta sentsazio orokor oso ona, aho zapore gozoa utzi zuen lehen edizio hark. Erabileran eta hizkuntza portaeretan eragina izan zuela baloratu zuten, eta emaitzak eskutan, eremu gehiagotara heltzeko nahia agertu zuten.

2020an, osasun krisialdi betean ginela, nabarmen mu-

rriztu zen parte hartzea, ziur-gabetasuna erabatekoa izan, biltzeko eta harremantzeko aukerak, bilguneak gutxitu ziren garaia. Orduko hartan, Euskaraldiko batzordetik oroi-tarazi dutenez, 949 lagunek eman zuten izena, 826 Ahobizik eta 123 Belarriprestak. Bigarren edizio hartan, estreina-koz entitateek ere parte har-tu ahal izan zuten, ariguneen bidez. Usurbilen 34 izan ziren.

## Ohitura aldaketak betikotzeko

Aurtengoan ere norbanakoen nahiz entitateen (enpresak, erakundeak, eragileak, dene-tariko eragile edota taldeak...) izen-ematea sustatuko du Usurbilen Euskaraldia bidera-

tzen ari den batzordeak. Baina batez ere, eta haxe da hain zuzen luzatu eta nabarmendu nahi duten mezua, ariketari eman nahi diote zentraltasuna. Norbanako nahiz entitate gisa parte hartzen ari direnek be-netan ariketa egitea da sus-tatu nahi dutena, izen ema-tearen bidez Euskaldiarekiko atxikimendua agertzeaz gain. Laburbilduz, euskara ahotan gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin hartzea, hizkuntza ohiturak aldatzea baina ez soilik, Euskaraldiak iraungo duen 15 egunetan, azaroaren 18tik abenduaren 2ra. Hamabostal-di horretatik haratago, ohitura aldaketok luzatu eta betikotzea da erronka.

**Bizitzeko GIPUZ KOA**  
para vivirlo

**5 PERTSONA BIZIPEN**  
BIZI ITZAZU!

Line

Phil

Reyes

Pablo

Ayoon y Max

GIPUZKOA TURISMOA



# C2 titulua eskuratzeko eskaintza AEK-n

Aurtengoak berea egin da, 2022-23 ikasturte-  
ra begira da Etumeta AEK euskaltegia. Irailaren 1ean zabalduko duten matrikulazio epearen baitan, maila guztietako ikastaroetan trebatzeko aukera eskainiko dute. Oraingoan arreta ordea, garai bateko EGA edo egungo C1-en ondorengoan, maila teknikoan kokatzen duten C2 tituluan jarri nahi dute eta berau eskuratzeko taldea osatzeko deia egin dute. Etumeta AEK-tik Rosa Zubeldiak gogorarazi digunez, agiri hau izatea sarritan administrazio publikoarekin lotzen dugun arren, “egia da enpresa pribatuetan ere eskatzen dela”. Geroz eta gehiago gainera. “Duela lauzpabost urte C2-az hitz egiten entzuten zenuen baina ez gertuko jendea. Orain ez dizut esango titulu hau eskuratzeko arrunta denik baina eskaera eta jakinmina handitu da”.

## C2 gehiagotan eskatzen dute

Etorkizunean gainera lan munduan, bai arlo pribatuan zein publikoan, bietan “aurreikusiten dut egun C1 eskatzen duten tokietan C2 eskatuko dela”, Zubeldiak aurreikusi duenez.



Jon Imanol Etxabe Telleriak C2 titulua eskuratzear du, AEK-n eginiko ikastaroaren ondotik.

## ETUMETA AEK

**“Duela lauzpabost urte C2-az hitz egiten entzuten zenuen baina ez gertuko jendea. Orain eskaera eta jakinmina handitu da”**

Horregatik dio, “aurre hartzea ez legokeela gaizki” eta hortik euskaltegian ere C2 titulua eskuratzeko prestakuntza taldea osatzeko gonbita, datorren ikasturtera begira. Asteaz bi ordu eta erdiko bi klase eskainiko dituzte “eta gainerakoak tutoretzak”. Autoikaskuntzaren bidea aurrez aurreko saioetara joan ezin dutenentzat. Nork bere kontutik egin ditzake C2 ti-

tuluar lotutako probak, udaberri eta udazken partean izaten diren deialdi irekietan.

Aurrez euskaltegian trebatzeak ordea badu abantailarik Etumeta AEK-tik nabarmendu dutenez. Batetik, zenbait proba aurrez bertan egiteko aukera. “Deialdi itxian, azterketa pasa aurretik euskaltegian ebaluazio bat gainditu behar dute. Bertan entzumen eta irakurmen probak gaindituz gero ez ditu errepikatu behar, zuzenean idazmen proba egitera joaten da”. Eta udaberrian eskuratutako nota, udazkeneko bigarren deialdirako gordetzen da. Gainditutako probak ez lirateke errepikatu beharko. C2 euskaltegian pres-

tatzearen bigarren abantaila, ekonomikoa; “merkeagoa da. Azterketaren prezioa erdira jaisten da”. Eta horri batu behar zaio, Usurbilen erroldatua egon edota finkatua dagoen gutxieneko asistentzia egitaztatuz gero, ikastaroa doakoa dela, Usurbilgo Udalak matrikulazioaren ehuneko ehuna diruz laguntzen baitu.

## Gorritz zuzentzen ez dena landu behar

C2-a gainditzeko laguntzen duen entrenamendu modukoa da euskaltegiak eskaintzen duena. “Ezagutza arlo bat edo proiektu txiki bat garatua izatea eskatzen da” eta. EGA-rekin edo C1-arekin alderatuta, C2-a gainditzeko irizpideen artean badira “gorritz zuzentzen ez diren balore batzuk. Gorritz zuzentzen duguna gramatika da. Argi ikusten du ikasleak. Baina horren atzean badaude zenbait ga-bezia, hutsune, aberastu edo osatu beharrekoak eta horiek ez dira gorritz markatzen”. Azterketarako ordea landuak daudela erakutsi beharrekoak dira; besteak beste, “testu generoari eta koherentziari garrantzia handia ematen zaio”.

# Komunikatzeko erraztasunak eskaintzea helburu

Titulu hau eskuratzetik ezin hurbilago den herrikideen artean da Jon Imanol Etxabe Telleria. Larunbatean egitekoa zuen azkeneko proba, mintzamenarena. Hamaika egitasmotan buru-belarri lanean ibilita, autoikaskuntzaren bidea hautatu zuen usurbildarrak C2-a prestatzeko, Lasarteko Munterri AEK-n aritu da. “Beti gustuko izan ditut hizkuntzak. Kantuaren bidez hainbat hizkuntza gehiago ikasteko aukera izan dut. Zentzugabekeria iruditzen zitzaidan kanpoko hizkuntzetan hain zentratua egotea eta etxekoa maila goren horretara-

raino ez eramatea”. Euskara egokiago erabiltzeko gogoz zen eta baita titulu bera eskuratzekoa ere. “Psikologoa-sexologoa naizen heinean, administrazio publikoarekin kontaktuan egongo naiz lehenago edo beranduago eta jakina da puntuak ematen dituela tituluak izateak”.

## Errazago komunikatzeko

Gai honekiko interesa izan dezaketentzat, zenbait gako eskaini ditu usurbildarrak. “C2-aren helburua komunikatzeko erraztasunak eskaintzea da”. Bere esanetan, “ez da samurra baina konstantzia hartuz eta ohi-

tuz gero, lanketa honi denbora zehatz bat eskaintzea lortu eta horrekin aurrera egiten duzu”. Bere ustez, “zerikusi handia du norberak hizkuntzak ikasteko izan dezakeen erraztasunarekin”.

## Gai egokia hautatzea

Probei begira, norberak hautaturiko gai baten inguruan idatzi nahiz ahoz azalpenak ematea eskatzen dute. Horregatik, garrantzitsutzat jotzen du gaia egoki hautatzea, probetan gero “horri buruz hitz egiteko” konpromisoa hartu behar baita. Gaiarekiko berarekiko ez da ezagutza sakona behar, baina bai

idazlan nahiz ahozko saioan moldatzeko adinako gaitasuna erakutsi behar da.

## Hitanora hurbiltzen

Jendea gutxienez titulu hau eskuratzeko saiatzeko gonbita luzatzen du Etxabek, “beti da denbora egokia kulturen eta bereziki euskararen inbertitzen dena”. Bere kasuan, “C2ari esker euskarara gehiago gerturatu naiz eta hitanoa ahotan hartze-  
ra animatu naiz lehen aldiz. Hartu nahi dudana ohitura da. Kaletik ikusten nauten usurbildarrei hika hitz egitera animatzen diet”.

# “Une horretan ez zara jabetzen zer datorkizun gero, zeure burua salbatu behar duzu”

Nafarroako suteen kaltea albiste egunotan. Duela 25 urtea ordea urak eragindakoa genuen hizpide nagusia Usurbilen. Duela mende laurden, egunotan, 1997ko ekainaren lehenean urak eragindako kalteak konpontzen ari ziren. Kalteen adierazle argia izan zen, ez zirela Oriak eragindako uholdeak izan, mendiko errekek eragin zuten triskantza baizik. Eta ez nolanahikoa. Ikastola Eguna ospatzekoa zen igande goiz hartan, 200 litro bota zituen bi orduko tartean. Hainbat eremu inkomunikatuta geratu ziren, Urdaia besteak beste; herri osoa argirik gabe. Eta urik gabe baita, Txikierdi, Aginaga eta Txokoalde. Kaltetuenak, Troia eta Puntapax inguruak Kalezarren, Etxealdia edota Txokoalde. Garai hartako 1.400 milioi pezetako kalteak, 600 milioi pezetako kalteak arlo publikoan, 800 milioioak arlo pribatuan.

**“Zerua eta lurra”, bat eginik**  
Arrisku egoera handienetako bat Troian bizi izan zuten. “Zerua eta lurra” bat eginik zeudela oroitzen du Imanol Zarautzek. Ura gora eta gora, ganbarara igo behar izan zuten. Handik teilatua zulatu eta teilatuan eutsi behar izan zioten egoera hari. “Bizilagunak oihuka ondo ote ginen, ia zerbait behar genuen”. Troiako semeak iltzatua du une haietako oroitzapena. “Ilunpetan ganbara, ura gora. Ur-soinua” horixe errepikatzen digu sarritan elkarrizketan zehar. Nahi duenak, Troiara gerturatu eta han dago egun hartan ura noraino igo zen adierazten duen arrastoa. Ikusgarria da. Zortea izan zutela dio, “baserri za-



Troia, 1997ko ekainaren 1ean. Garai hartan, NOAUA-k kaleratu zuen aldizkari berezitik ateratako argazkia. Gaztetxoa zen bizilagunetako batek, Peru Galbetek egun hartakoa “Ura sartu zen barrura” izeneko dokumentalean jaso zuen. 2020an aurkeztu zuen.

## IMANOL ZARAUTZ

**“Baserria guztiz birrindua geratu zen barrutik eta bertatik joatea erabaki genuen”**

harrak uraren kolpea jasan zuen. Teilatutik atzeko mendira nolabait jaitsi ginen”.

### “Etzerik gabe geratu ginen”

Muturreko arrisku egoera hartatik bizirik ateratzea zen lehentasuna. Onik atera ziren. “Une horretan ez dakizu zer datorkizun gero, zure burua salbatu behar duzu”. Geroa jabetu zen, urak eramandakoaz. Jantzitakoa baino ez, “etzerik gabe geratu ginen” eta bizilekua galtzarekin batera, “1997ra arteko oroitzapenik” gabe ziren. Eta buruan jira-birran galdera bera; “eta orain zer, eta orain zer?”.

Etxe ondoko errekek zekarren ur, lokatz eta harriek deuseztatu zuten dena. Jo-

lasean ibilitako eta bere garaian baserria urez hornitzen zuen erreka hark, “gauza asko ematen ditu bai”. Baina argi izanda, helduko dela egun bat guztia eraman dezakeena. “Ziklo horretan iristen da egun bat. Ez bazaude prestatua bizpahiru orduan kentzen dizu dena”. Eta horrela, noizean behin halako egoerei aurre egin beharrean aurkituko zirela ikusita, 1997ko uholdeak mugarri izan ziren familia honentzat. Orduko hartan, “baserria guztiz birrindua geratu zen barrutik eta bertatik joatea erabaki genuen”.

### “Herriak ederki erantzun zuen”

Bizimodua goitik behera aldatu zitzairen. Ordura arteko baserriko lanak alboratuta, “denok kanpoan hasi ginen lanean”. Agerialde ondoko udal etxebizitzetan ekin zioten bizimodu berriari. “Une oro zerbait behar baguen materialki, uzten ziguten. Udalak eta herriak

ederki erantzun zuen, guztiz eskertzekoa”, oroitzen du Imanolek. Gerora, “baserria harri eta egur askatu” eta egun duten nekazalturismoaren proiektuari heldu zioten.

25 urte igaro dira ordutik, eta ekainaren 1a oroitzapen egun seinalatua dute familian. “Gurasoek bereziki. Guk oroitzapenak galdu ditugun moduan, haiek oroitzapenak eta haien izerdiz eginitiko lan guztia galdu zuten”.

Bisitariei ere etxearen historiaz galdetzen dietenean, azalpenetan noski, bizimodua goitik behera aldarazi zien egun latz hura oroitzen dute.

Orduko kokalekutik gertu gerora eraikitako etxea 150 bat metrora egongo da, 20 metro altuago. “Baina zer garrantzitsuak diren 20 metro horiek. Dena erabat aldatzen dute”. Argi du; “erreka baten ondora bizitzera joatekotan, erreka horrek irteera ona duela jakinda joango litzateke”.



# Txokoalde, auzo kaltetuena: “Ez zuten urik, ezta argirik ere”

1997ko ekainaren 1ean euri jasek esnatu zuten udaleko brigadako langile Julian Bengoetxea. Lehen irudia, etxeko leihotik ikusitakoa. Eguzkitzaldea, Aranerreka inguruko lur eremua urpean. “Autoa hartu eta zer gertatzen ari zen ikustera irten nintzen”, udaltzainekin hitz egiten aritu ostean. Troian lehen geltokia. Bizilagunak teiltuan, “ura goraino, ezer egiterik ez”.

Handik ezin herrira bueltatu, erreka guztiak gainezka ziren. Arratzain aldera. Handik bueltan lubizia, “furgoneta bat harrapatua”. Nola edo ahala herrira itzuli eta jendea eta baliabideak mobilizatzen hasi zen. “18 hilabete erre gabe pasa ostean”, egun hartan piztu zuen lehen zigarroa.

## Oso egun gogorak

Gogoan du, Etxealdia inguruan eta ura sartu bazen ere, auzo kaltetuena Txokoalde izan zela. “Mundua bukatu zela zirudien, dena gainera erortzen zaizu”. Oso egun gogorak bizi izan zituztela kontatu digu.

Lehen egun hartan urak jaitsi arte, ezin ezer askorik



Txokoaldeko trenbide ingurua, 1997ko ekainaren 1ean. Andatzatik behera zetorren ur guztiak eragin zuen txikizioaren irudietako bat. Ur eta argindar azpiegiturak kaltetu zituen, baita zenbait etxebizitza ere.

## JULIAN BENGOTXEA

**“Mundua bukatu zela zirudien, dena gainera erortzen zaizu.**

**Txokoalden ez zuten urik, ezta argirik ere”**

egin. “Ez zuten urik, ezta argirik ere”. Oroitzen du deposituan ura sartu sartzen zela baina “ihes egiten zuen denak”.

Erroizpeko presak gainezka egin zuen menditik jausitako harri guztiekin.

Asfaltorik ez zegoen, ezin asma zitekeen non amaitzen zen erreka, non hasten zen bidea... Brigada osoa jo eta su aritu arren, kanpoko laguntza behar izan zuten. “Txokoaldeko azpiegitura osoa berritu zen”. Uholde haien ondorioei aurre egin beharrak luze jo zuten.

## Zaindu beharra

Neurriz kanpoko izan zen egun hartakoa, baina zerbait ikastekotan Bengoetxearen esanetan, “natura gehiago zaindu eta bazterrak txukunago” izan behar ditugula da, erreketako oztopoak ere aipatu dizkigu. Beste halakorik “ez dadila etorri” dio. Baina aditu asko ohartarazten ari diren moduan, “klima aldaketarekin noiznahi gerta daiteke berriz”.

# “Itsasoa zirudien. Aurrea, atzea, dena ura”

Duela 25 urteko uholdeetan auzo kaltetuena Txokoalde izan zen. Andatzatik behera zetorren egun hartako urak aurrez aurre harrapatu eta eramanean zuen guztia. Errekako urak eta erriokoak bat egin zuen.

Menditik behera zetorren ur guztia Txokoalde erdigunera iritsi ahala topo egin zuen besteak beste, Portu etxearekin. Erreka ondoan dago kokatua baserria eta “tope

egiten” zuen. 1997ko ekainaren 1ean, “ura eta ura” goitik behera, indarrez gainera eta etenik gabe zetorrela oroitu digute Portukoek. Ukuiluan ziztuzten animaliak eta ibilgaiak salbu jartzeko denbora juxtua izan zuten. Ganbarara igo behar izan zuten.

Ikusitakoa deskribatu digute. “Itsasoa zirudien. Atzea eta aurrea dena ura. Oso kolore zikina. Behi batzuk atera ezinik marruka. Agonia handia zen”.

## “Kolpekoa izan zen”

Txikizioa urak jaitsi zirenean. Biharamunean, “herri lanean, ontzi zikinak errekan pasatzen”.

Uholde bat baino gehiago bizitakoak dira Txokoalden, baina 1997koez oroitzapen argia dute, “bat-batekoa izan zen. Errioa ikusten da igotzen, hark denbora ematen du atea ixteko, baina hau kolpekoa izan zen eta ez zuen ezertarako denborarik

eman. Mendira begiratu eta inpotentzia. Hari begira jarri eta ezer egiterik ez, inpotentzia handia”.

## Harriak errekan pilatzen

Uholde haien ostean, ordu-ra arte lur azpitik igarotzen zen erreka bistaratu zuten. Egun bertan dauden harriez ohartarazi digute. “Ez dituzte kentzen”, pilatzen doazela eta atera behar lituzketela diote.

# Arkaitzerrekako hondamendiari lotutako ikerketa zabaltzea agindu du Donostiako epaitegi batek

Ehunka arrain hil zituen erraustegitik Arkaitzerrekara izandako 2020ko maiatzeko isuriaren kasuan urrats berri bat eman du, “erraustegiaren funtzionamenduan delitu ekologikorik egon ote daitekeen” ikertzen ari den Donostiako 5. Instrukzioko Epaitegiko magistratuak, GuraSOSe berri eman duenez. “991/2020 aurretiazko eginbideak ireki zituenak, beste inputazio batzuk egitea eta GuraSOS elkarteak eskatutako proba eginbide berriak egitea erabaki du, baita Ingurumen Fiskaltzak eskatutakoak ere”.

Aipatu elkartetik gogorarazi dutenez, “bere autoan, magistratuak erabaki du Guardia Zibilaren Sepronari bi ikerketa agintzea”. Batetik, “hildako aingira baten ehunean agertutako kloroalkanoen (0,885 mg/kg) eta metalen maila handiaren jatorria edo emisio-iturria aurkitzeko”. Bestetik, “kutsatzaileak ez sakabanatzeko, isurketarik ez gertatzeko edo



Sepronaren ikerketak dioenez, “kloroalkanoak eta metalak konposatu oso toxikoak dira”.

## GURASOS

**Hondamendiaren jatorria erraustegian dagoela frogatuko balitz, “epaitegiak jarduera geldiarazteko agindu lezake”**

langileen eta ingurumenaren segurtasuna bermatzea helburu duten zer obra, segurtasun-sistema, funtzionamendu- eta segurtasun-proba, instalazio eta gainerako neurri zuzentzaile edo segurtasun- eta kontrol-neurri zehatzak, egin gabe, instalatu gabe edo

behar bezala funtzionatzen dutela frogatu gabe zeuden gertakarien unean eta azkenean zein datetan ezarri diren zehaztea”.

## “Oso konposatu toxikoak”

Kloroalkanoen eta metalen ikerketari dagokionean, Sepronaren ikerketak dioena aipatuz GuraSOSen esanetan, “oso konposatu toxikoak” dira eta “minbizia sor dezaketela giza-kiarengan eta beste kalte larri batzuk osasunean eta ingurumenean”, eta, aldi berean, substantzia hori “debekatua dagoela 2004az geroztik EBn.

Era berean, aingiran aurkitutako substantzia horren jatorria zehazteko beharra azpimarratu zuen, baina susmoak ikertzen ari zen erraustegiaren jarduerakoak zirela aurreratu zuen: “bizitza baliagarriaren amaieran hiriko hondakin solido gisa kudeatu ohi diren plastikoak, gomak edo pinturak izan daitezke hautagai posibleak, instalazioak erregai gisa erabiltzen dituen materialak”, zioen perizialak”.

Hala dela egiaztatuko balitz, hondamendi honen jatorria erraustegian dagoela alegia, GuraSOSe gogorarazi moduan, “epaitegiak jarduera geldiarazteko agindu lezake”. Bigarren ikerketa instalazioei lotutakoa dela adierazi dute. “2020ko maiatzean zuen segurtasun-egoera (edo segurtasun-falta) argitzen saiatzen da; izan ere, 2020ko otsailetik %70-80ra bitartean funtzionatzen zuen instalazioak, obrak amaitu gabe, beharrezko probak egin gabe eta martxan jartzeko baimenik gabe”.

## Inputatu gehiago

Hau gutxi ez eta, “ikerketaren alderdi subjektiboa ere handitu egin da”, dio GuraSOSe. “Hiru egozpen edo inputazio pertsonal berri gehitu dira, GuraSOS elkarteak eskatuak. Une honetan, ikertutako hamalau pertsona daude, eta beste lau enpresa ere bai GHK SAU publikoarekin egoera horretan bat egin dutenak”. Besteak beste, Cesar Gimeno bide-ingeniarria, GuraSOSen esanetan, egungo GHK-ko eta Gipuzkoako PSE-eko lehen-dakari eta Foru Aldundiko ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensoren “eskuin-eskua” eta biak Iñaki Arriola garraio sailburu zela “konfiantzako talde

kideak” 2009-13 legealdian.

“Ekondakin enpresa kontzesioduna Donostiako Epaitegiak egotzitako beste entitateetako bat da”. Bertan dira, “Meridiam, [enpresa] inbertitzailea, hondakinak tratatzeko Urbaser multinazional txinatarra, Altuna eta Uría, Moyua eta Murias erakuntza-enpresa gipuzkoarrak eta LKS”. Ekondakinek sortutako Ekobal “erakunde instrumentala ere inputatu du epaileak” baita labeen teknologia berria erraustegira ekarritako “SBE (Steinmuller Bakoc Environment) enpresa alemana” eta “Boldrochi multinazional italiarra ere, ikertutako kubetaren instalazioan parte hartu bai-

tzuen”. Horrez gain, “beste lau lekuko izendatzea ere erabaki du; besteak beste, URA inspektorea eta isuriaren salaketa egin ondoren jardun zuen basozaina, eta GHKko proiektuen zuzendaria. Lekukoen deklarazio-data ez da oraindik adierazi”.

Inputatuena bai. Ikertu berri hauek guztiak deklaritzen hasteko hitzordua jarria dagoela berri eman du GuraSOSe; irailaren 16an, goizeko 9:30ean. Kasu honen instrukzioa zutailerako amaitzea aurreikusia bazen ere, “beste sei hilabetez luzatzea espero da”.

## “Pribatizazioaren prekarizazioa”

Epaileak eskatutako ikerketa

ontzat eman du GuraSOSe ohar bidez jakitera eman duenez. Baina elkarte honek galdegindako proba guztiak onartu ez direnez, egunotan apelazio-errekurtso bat aurkeztekoa da Probintzia Auzitegian. GuraSOSe “erantzukizunaren eskakizuna zailtzeko asmoz”, emakidadunak jarritako “pertsona juridikoen multzo konplexua” nabarmendu du. “Pribatizazioaren prekarizazioa da, jardueraren kontrola eragozten eta zailtzen duena eta, aldi berean, haren arriskua handitzen duena. Ikerketa hau horren froga garbia da”.



**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia eta terraza. 688 710 916.

**Alokairuan**

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziazkoa da. 649 429 416

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, mas-kotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta errol-datzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

**MOTORRA****Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m<sup>2</sup> garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209

Garaje marra bat salgai Punta-pax kalean, BM parean, 18 m<sup>2</sup>. 18:000 euro. 687 348 223.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondo jate-txean. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburueta-rako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jate-txean. 666 671 444

Zerbitzaria behar da Artzabal-en. 3 astetik behin asteburu jai. 30 orduko lanaldia. 943369139.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Adinekoak eta haurrak zain-tzak edota etxeko garbiketarak egiteko eskaintzen naiz. Esperimentzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Umeak zaintzeko prest dagoen gazte euskalduna. Jada umeekin esperientzia badaukatu. Interesatuak: 688 73 43 44

Margoketa lanetan, altzariak zaharberritzen 30 urteko esperientzia. 626 10 70 76.

Erizain laguntzailea naiz eta pertsona helduak zaintzeko edo garbiketarak lanak egiteko lan bila nabil. Orduka, gauak edo astebukaerak interna moduan aritzeko disponibilitatea daukat. 672 587 671

Umeak zaintzeko prest. 695 184179/aneseoane@gmail.com

Hotel, jatetxe, soziedade edo etxeetako garbiketa lanak egi-

teko prest: 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaquecamilo\_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkat. 688 715 958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

**BESTELAKOAK**

San Esteban (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galdu dituenak Udaltzainetan dauzka jasotzeko.

24 hazbeteko telebista berria salgai. Erabili gabea. 646 185 716.

## Usurbil K.E.ren ohiko batzarra

**Ekainak 25, larunbata**

■ 09:30 Sutegiko auditorioan.

■ Gai-zerrenda:

1-Lehendakariaren agurra.  
2-2021-2022 denboraldiaren kirol balantzearen aurkezpena, eta onarpena, egoki bada.

3-2022-2023 denboraldiaren kirol aurreikuspenen aurkezpena, eta onarpena, egoki bada.

4-Diru-kontuak. 2021-2022 denboraldiko balantzea eta 2022-2023 denboraldiko aurrekontuaren aurkezpena, eta onarpena, egoki bada.

5-Zuzendaritza Batzordearen proposamenak.

6-Bazkideen proposamenak.

7-Galdera-eskaerak.



Brontzezko hiru domina eskuratu ditu Nahia Zudaire Borrezo Zubietako igerilariak iragan astean Madeiran jokaturiko mundu mailako txapelketan. 70 herrialde inguruko 600 igerilari batu dituzte hitzorduak. Zorionak!

**Heriotzak**

**Juan Luis Astiazaran Esnal**

Ekainaren 14an

hil zen

75 urterekin



## Goardiako farmaziak

**Osteguna 23** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 24** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 25** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 26** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Astlehena 27** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Asteartea 28** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteazkena 29** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Osteguna 30** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Ostirala 01** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 02** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Igandea 03** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
GOMEZ BRAVO, MARINA  
Kale Nagusia, 14 Hernani  
943 55 48 92

**Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian dituzue ikusgai.**

# Agenda ekaina

## 24 ostirala

- **San Juanak Kalezarren: San Juan Eguna**  
Ikus egitaraua orrialde honetako albistean.
- **Sareren mobilizazioa.** 20:00etan Mikel La-boa plazan.

## 25 larunbata

- **San Juanak Kalezarren:** Ikus egitaraua orrialde honetako albistean.
- **Usurbil K.E.-ren batzarra.** 09:30etan Sute-giko auditorioan.

## 26 igandea

- **San Juanak Kalezarren: Umeen Eguna.**  
Ikus egitaraua orrialde honetako albistean.

## Kalezar, jai giro betean

**Ekainak 23, osteguna: San Juan bezpera**

- 15:00 San Juan eskearen irteera.
- 22:00 San Juan sua Pikaolan.
- Ondoren, eskearen jarraipena.

**Ekainak 24, ostirala: San Juan Eguna**

- 11:00 Meza Nagusia.
- 12:00 Toka eta hamaiketakoa.
- 13:00 Lopeneren animaliak.
- 17:00 Auzotarren arteko herri kirolak.
- Ondoren, buruhandiak.
- 19:00 Sardina jana.
- 22:00 Kontzertuak: Andoni Ollokiegi bakarlaria, Kinada taldea eta Kilimak taldea.

**Ekainak 25, larunbata:**

- 10:00 Oilaskobiltzaile txikien irteera.
- 14:00 Oilaskobiltzaile txikien bazkaria.
- 16:00 Mus txapelketa (izen-ematea 15:30ean itxiko da).
- 17:00 Herriko dantzariak.
- Jarraian, buruhandiak.



Igandean ospatuko da umeen eguna.

- 19:30 Patata tortila txapelketa.
- 00:00 Gogo-Gozo erromeria.
- Jarraian, Dj Hama.

**Ekainak 26, igandea: Umeen Eguna**

- 10:00 Umeen Krosa.
  - 11:30 Jolasak.
  - 16:00 Tailerrak.
  - 18:30 Txokolatada.
  - 19:00 Dj GorkaMendiren eskutik dantzaldia.
- Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea.

## Pentsiodunen martxa amaiera

Ekainaren 13an Donostian hasi eta egun berean udalerrri hau Zubietatik Aginagara zeharkatu zuen pentsio publiko duinen aldeko bizikleta martxa larunbatean, ekainaren 25ean amaituko da. Euskal Herria zeharkatu duen ekimena abiapun-

tura, Gipuzkoako hiriburura itzuliko da 11:30etan. 12:00etan Alderdi Ederretik abiatuko den manifestazioarekin amaituko dute. "Pentsio publiko duinak eta behar adinakoak" galdegitera deitzen dituzte herritarrak.

### Datozenak

### Jakin Jardunaldia: "EH2040: demografia, zaintza eta hizkuntza"

"Euskal Herria 2040an nolakoa izango da? Zer esaten digu prospektiba demografikoak? Zenbat jende biziko da? Gizarte zahar batera al goaz? Ze eragin du horrek zaintza eremuan eta pentsioetan? Eta lurralde orekan? Eta euskararen? Eta hirien antolaketan? Zein den etorkizuna eta zer nolakoa izan dadin nahi dugun jakin behar dugu etorkizun dagoenari aurre hartzeko".

Demografia prospektibaren argitan, Euskal Herria 2040an nolako izango den aztertu nahi da eta, horren aurrean, "lurralde oreka, hizkuntzaren biziberritzea eta ongizate politiken eta zaintza eremuan demokratizazioa erdiesteko zer aukera dugun eta nola egin hausnartu".

### Uztailak 7 eta 8, Usurbilen

- Tokia: Artzabal.
- Orduetgia: Uztailaren 7an, 9:00-17:00 artean. Uztailaren 8an, 9:00-13:00 artean.
- Ordu kopurua: 12.
- Matrikulazio epea: maiatzak 9-uztailak 1.
- Prezioa: 10 euro.
- Informazio gehiagorako: ueu.eus
- Antolatzaileak: UEU, Jakin, Udala.

**Usurbil Autoak**  
**MEKANIKA-KARROZERIA**

**SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!**

**ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA** **943 36 10 79**

**JUANTXO**  
**BURDINDEGIA**

**Zubiaurrenea 8**  
**943 370 008**

**Okindegia-Gozotegia**

**LABE-GOXO**



USURBILGO

# TON-BOLA

## Eskuratu zure bonua!

Establezimendu bakoitzak 7 bonu saritu dauzka.

30 €-ko bonu 1  
20 €-ko bonu 1  
10 €-ko 5 bonu



# Udarregi

## IKASTOLA



On do paga sant☆xabeLak!!!

☆xabeL

943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

[www.udarregi.eus](http://www.udarregi.eus)